



ZESTOAKO UDALA

## **AKTA**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko urriaren 16an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hamaseian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

- 1.-** Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko irailaren 13an buruturiko saioari dagokion akta.
- 2.-** E.A.El.. Arroako Urolako tren geltoki zaharretik Guardi Zahar bitarteko bide zatian hormigoia (edo antzeko beste materialen bat) botatzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea Arroabeko auzotarrek garbitu duten treneko plataformaren jabegoa Eusko Trenbide Sarearena dela (Eusko Jaurlaritza). Treneko plataformari bidegorria izaera eman eta bertan egokitzapen lanak egiteko baimena administrazio honek eman behar du. Zestoako Udalak Eusko Trenbide Sareari idatziz kontsulta luzatu dio eta erantzunaren zain dago, berari baitagokio bide horren kudeaketa. Bestalde, E.T.S.k baimena emango balu, udalak lan hauek aurrera eramateko baliabide ekonomikoak badituen aztertuko du.
- 3.-** J.L.E.A., Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2018ko iraileko hilabeteari dagokiona. Erabaki da jaso izanaren adierazpena egitea.
- 4.-** J.A.A., kafetegiaren kanpoaldean 3 mahai eta 9 aulki jartzeko eskaera ematea, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.
- 5.-** M.U.S., Sastarrain baserri-eskolaren ingurua errebisatzeko eskaera egiten du, instalazio prefabritakuaren egoera urbanistikoa. Erabaki da jakinaraztea baimena begiratuko dela.
- 6.-** A.M.ri, Olaberribidean duen enpresako pabilloia iraun ahal izateko, 30 metroko luzera eta 3 metroko altuera duen harri-lubeta bat eraikitzeako obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.
- 7.-** I.D.E.S.A.U.ri, 13,2 kV S.C. lurrazpiko linearen modifikazioa egiteko, CT Zubi Ondo eta Zubimusuko (457203) Zestoa-Zestoa linearen 45 zenbakidun euskarriaren artekoa, obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.
- 8.-** X.S.A.S.L.ri, Akoako Z. baserrian bigarren etxebizitza prestatzeko-habilitatzeko udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.
- 9.-** I.A.S., Arroagoiko E. baserriaren lurretan, ikuilu berria eraikitzeko udal baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea proposaturiko ukiulu berria ez dela baimengarria legeak ezarritako distantziak<sup>1</sup> ez dituelako betetzen, proposamen berria aurkeztu beharko da udalean distantziak<sup>1</sup> beteaz. Hau aurkeztu ondoren Gipuzkoako



Foru Aldundira bidaliko da, administrazio honek aldeko txostena egin dezan.

10.- Zestoako Udalak, Arroabeko M.n udal lizentziarik gabe egiten ari diren lanen berri izan du. Erabaki da hurrengo Hirigintza Batzordean gaia zehatzago aztertzea.

11.- Zestoako Udalak, herriko tabernetan eskatutako mahai eta aulkien zerrenda aurkezten du, tabernariak jarrita dituztenekin alderatzeko. Erabaki da udaltzainei zerrenda ematea, eskatutakoak baino gehiago jarrita dituzten tabernetatik pasatzeko. Tabernari horiei ohartaraztea, eskatu gabe dauden mahaien lizentzia eskatu behar dutela.

12.- E.J.O. eta E.S., 2019ko garraio zerbitzuko prezioak onartzeko Euskadiko Prezioen Batzordeak erabakitako lan-egutegia jakinarazten du. Erabaki da berri ematea.

13.- E.J.O.S., A.T.T.S.L. enpresak aurkeztutako proiektuaren aldeko txostena igortzen du. Erabaki da berri ematea.

14.- A.T.T.S.L. enpresaren jardueraren legeztapen prozesuko jendaurreko epean, hiru alegazio jaso dira. Erabaki da alegazioen kopia bat igortzea proiektua egin duen DPO I.ri, alegazioak aztertu eta erantzun proposamena egin dezan, hala badagokio.

15.- A.T.T.S.L., Estazioko industrialdean duen pabiloiko zoruan hormigoia botatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea obretako baimenik ezin dela eman, jarduera baimena tramitatu arte.

16.- J.A.G., Aizarnako 5. poligonoko 8. lursailean oilo erruleentzat nabea eraikitzeke exekuzio proiektua aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea exekuzio proiektua bisatu gabe dagoela, eta dokumentu batzuk falta direla.

17.- R.A.Y.ri, San Isidro 4 eraikineko teilatu-hegalean filtrazio txiki baten konponketa egiteko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

18.- J.M.U.A.ri, Ibarrola-berri baserriko teilatua berritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

19.- M.T.S.L., jarduera legeztatzeke proiektua aurkeztu du. Erabaki da jarduera sailkatuentzat ezarritako tramitazioari ekitea, lizentzia eskaera jendaurrean jartzeko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera igorri, osasun arloko txostena eskatuz eta kokaguneko aldamenekoei jakinarazpenak bidaliz.

20.- G.F.S.L., jarduera legeztatzeke proiektua aurkeztu du. Erabaki da jarduera sailkatuentzat ezarritako tramitazioari ekitea, lizentzia eskaera jendaurrean jartzeko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera igorri, osasun arloko txostena eskatuz eta kokaguneko aldamenekoei jakinarazpenak bidaliz.

21.- J.M.E.L., Ibañarrietako I. baserriaren lurretan kokatuta (32. poligonoa, 42 partzela), ardientzako eta nekazal erabilerako ukuilua egiteke exekuzio proiektua aurkeztu du, eta lan hauek egiteke udal baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

22.- J.M.O.O., duela hilabete batzuk Udalari Lizarraitz auzuneko jabetzakoa den eremuan ezin dela aparkatzea debekatu eta, ondorioz, "badoak" jartzeko baimena ez ematea



## ZESTOAKO UDALA

eskatu zen. Udalari eskatzen dizkio Lizarraitz auzunean jarritako 02 eta 05 zenbakia duten badoen baimenaren espedienteak eta emandako baimen horiek bertan behera uztea. Erabaki du jakinaraztea aipaturiko badoen baimenaren espedienteak Udal honetan kontsultatu daitezkeela, baina ezin dela kopiarik atera. Bestalde, emandako baimenak ez dira atzera botatzen.

23.- E.A.E.L.A.B., Zestoako Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala, Irao baserriaren inguruko lurzoru urbanizaezinari eta Sastarrain baserri-eskolari dagokion erabakia igortzen du. Erabaki da kopia bat erredaktore taldeari igortzea.

24.- Zestoako Udalak, EIT txostena eskatzeko garaian kontutan hartu beharreko irizpideak, Eusko Jaurlaritzak Dekretu berria onartu ondoren. Erabaki da eskutitzak bidaltzea EIT pasa beharra duten etxejabe guztiei.

25.- I.D.E.S.A.U.ri, Lasaoko 132/30 Kv-ko Azpiestazio Eraldatzailearen instalakuntza berritzeko udal baimena ematea, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

26.- A.M.I.L.ri, Elizkalea 10 eraikineko fatxada eraberritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

27.- C.y.R.U.S.L.ri, Construcciones y Rehabilitaciones del Urola S.L.k, Narkis Balentziaga kalea 14 behean duten lokalean obrak egiteko (leihoak eta isolamendua) udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

28.- A.M.I., 2018ko uztailaren 27ko Gobernu Batzordeak ez zuen egokia ikusi Arroabeen bizikletak garbitzeko mangera jartzea. Arroabeen bizikletak garbitzeko mangera bat jartzeko eskaera egiten du. Erabakiarekin ados ez daudela eta, berriro idatzia aurkezten du eta eskaerari hainbat sinadura atxikitzen dizkio. Erabaki da 2018ko uztailaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia berrestea.

29.- U.U.A., B.A.S.A. hornitzeko, aurretik zegoen telefono sarea handitzeko lanen berri eman du. Erabaki da berri ematea.

30.- B.T.F., udalerrri honetan, aparkatzeko ordutegi mugatu barruan egunero autoa aparkatzeko zailtasunak dituela dio. Horrela Udalari eskatzen dio aparkatzeko txartelak egin ditzala, langilearen identifikazioarekin, udal honetako gainerako langileentzat ere egin daitezela. Ikusirik momentu honetan TAO zerbitzurako egokitutako aparkaleku kopurua txikia dela, eta goizean zehar bertan aparkatzeko herritaren eskaera handia dela, eskaera ez onartzea erabaki da.

31.- R.I.A., San Isidro kalea 6 eraikinaren aurrean dagoen zuhaitzak zikin asko botatzen duela dio. Gabonetan argiak jartzen omen dira bertan, eta podaketa baten beharrea dagoela deritzo. Erabaki da udaleko lorazaintza zerbitzuarekin gai hau aztertzea.

32.- A.E.P., Lourdes-enea tabernari hainbat baldintza jakinarazi zitzaizkion uztailaren 25ean titularitate aldaketa egiteko. Eskatutako agiri horiek aurkezten ditu. Erabaki da jakinaraztea horietako dokumentu bat ez dela zuzena.

33.- A.E.Z., M. tabernaren titularitate aldaketa eskatzen du. Erabaki da hurrengo Hirigintza batzordean aztertzea gaia.



34.- I.G.K, Etorrabidean, G. etxetik gertu dagoen errebueltan simaurra botatzearek buruzko idatzia aurkezten du. Bertan dio 2018ko maiatzaren 11n udalaren aldetik jasotako jakinarazpenean, simaurra denbora batez pilatu zitekeela eta distantzi minimo batzuk errespetatu behar zituztela. Adostutakoa lehenbailehen betetzea eskatzen du. Erabaki da Udala simaurra botatzen dutenekin harremanetan jatzea.

35.- P.L.O., , Gesalaga kalea 22ko atzekaldea 12 eta 13 zenbakidun badoak dituzten garajeen jabeak direla dio. Garajeetatik kotxeak sartzeko edo ateratzeko arazoak dituzte, lurrean marraztutako marrak eta garajeetako sarreren marrak ez datozelako bat; eta beste auto batzuk gaizki aparkatzen dutelako, marrak zapalduta. Erabaki da jakinaraztea Zestoako Udalak, kanpoko enpresa espezializatu batekin Zubimusuko eta Idiazpiko aparkalekuak berriro margotu nahi dituela epe motzean. Lan horiek egiteko garaian, Gesalaga 22 zk.aren atzeko 12 eta 13 zenbakidun badoetako lurreko marrak egokiago margotuko dira.

### **Batzorde informatiboen bileren akten onarpena**

2018ko irailaren 18an, Kultura eta Euskara Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko urriaren 4an, Auzoak eta Baserriak Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

### **Alkatetza ebazpenak**- Honako Ebazpenen berri eman da:

- \* 147 zk, A.I.Z.ri U. baserri ondoan ukuilua legeztatzeke udal baimena ematen zaio.
- \* 148 zk, A.A.Kri %100eko kontratua egitea M.I.I.ren gaixotasun baja ordezkatzeko.
- \* 149 zk, Arroa Beheko eskola berriaren urbanizazio lanen espedientea abiarazteke ebazpena.
- \* 150 zk, M.A.A.i Zestoako Baratze Parkeke 28 zenbakidun ortua erabiltzeke lizentzia ematea.
- \* 151 zk, S.N.S.i Gesalaga kalea 3 beheke lokalean ileapaindegia egokitzeko obretake udal baimena ematea.
- \* 152 zk, L.Z. O.ri arriskutsua izan daitekeen animalia edukitzeko lizentzia ematea.
- \* 153 zk, Zestoako Udaleke obra eta zerbitzuetake enkargatua den I.P.L., Azpeitike Udaleke balio anitzeko lehen mailake ofizialen lanposturake lehiaketa-oposiziok e paimahaikide izateke eskaera onartzea.
- \* 154 zk, A.A.F. kontratatzea Zestoako Udaleke laboral finko bezla, garbitzaile plaza betetzeke.
- \* 155 zk, G.N.F. bitarteko funtzionario izendatzea, udal brigadake ur eta argiteriaren enkargatu lanpostuan aritzeke.
- \* 156 zk, Karmengo Amaren errepidea 4 eraikineke fatxada eraberritzeke obretake udal baimena ematea Arena Y Bronze S.L.ri.
- \* 157 zk, San Isidro kalea 9 eraikineke sarreran arranpa egiteke obretake udal



ZESTOAKO UDALA

baimena ematea .

- \* 158zk, Uztapide plaza 2 3B egungo etxebizitzaren eraberritze obretako udal baimena ematea J. U.ri.
- \* 159 zk, Meagako errepidea 8ko A. erretegiaren ondoan duen txabola haunditzeko (egurra gordetzeko) obretako udal baimena ematea J. O.ri.
- \* 160 zk, L.A.M.r kontratazea %68an B.T.F.en baja ordezkatzeko.
- \* 161 zk, A.M.A.M. bitarteko funtzionario izendatzea garbitzile postuan aritzeko %60an.
- \* 162 zk, Arroabea auzoko Olaeta kalean, GI-631 errepidean dagoen autobus geltokia irisgarritasun baldintzetara egokitzeko lanen gauzatzea onartzea.
- \* 163 zk, Iraetabidea 20 zenbakidun eraikinari errekerimendua luzatzea EITea dela eta.
- \* 164 zk, Olaizola eta Uria 1 zenbakidun eraikinari errekerimendua luzatzea EITea dela eta.
- \* 165 zk, Zubimusu auzunean dauden bi ibilgailu hiri-hondakin solidotzat hartzeko ebazpena.
- \* 166 zk, esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzeko prozedura (C gasolioa hornitzeko) onartzea.

**Galdera eta erreguak.** Ez da egon

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

Idazkaria,

O.e

Alkateak,